



ADMINISTRAZIOEN ARTEKO
EUSKARAZKO HARREMANAK
SUSTATZEKO PROIEKTUA

Berdintasun arloetako diagnostikoa

2019ko iraila

Aurkibidea

1. Azterketaren nondik norakoa	4
2. Ahozko harremanak.....	6
2.1. Harreman motak	10
2.2. Solaskidearen erakundea	13
3. Idatzizko harremanak.....	19
3.1. Harreman motak	23
3.2. Solaskidearen erakundea	26
4. Gako nagusiak.....	32

Eranskina: Galdetegi ereduak

Hakobak, Herri Administrazioen Koordinazio Batzordeak, esperientzia pilotu bat jarri du martxan, erakundeen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin. Laneo komunikazioetan ahozko zein idatzizko jardunean, euskararen erabilera areagotzea du xedea. Bi alorretan egingo du esperientzia pilotua: berdintasunean eta kulturaren.

EAEko erakundeek osatzen dute Hakoba: Eusko Jaurlaritzak; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek; Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalek; Eudel udal elkarteak; eta Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Hain justu, azterketa honetan ere hiru erakunde esparru horiek hartu dira aintzat: Jaurlaritza, diputazioak eta udalak. Erakunde horietan berdintasun teknikariak eta kulturaren arloan ari diren beharginak hartu dira aztergai, haien lan jarduneko komunikazio hizkuntza.

Lanean hasteko, abiapuntuko diagnostikoa egin du, Siadeco Ikerketa Elkartearen bidez. Honako txosten honetan bildu da berdintasun arloko teknikariek egindako azterketa. Teknikariei egindako inkesta baten bitartez, aztertu da lanean norekin izaten dituzten ahozko eta idatzizko harremanak, eta zein hizkuntza erabiltzen duten.

Azterketaren nondik norakoa

Langileei egindako inkesta bat da ikerketaren oinarria. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) informazioa helarazi dio Siadecori: zehazki, berdintasunaren arloan, hiru erakunde esparru horietan —Jaurlaritza, diputazioak, eta udalak eta mankomunitateak— ari diren teknikariei buruzko informazioa eta haiekin harremanetan jartzeko bidea, inkesta helarazteko.

Azterketan sartzeko, bi irizpide hartu dira kontuan: beste erakundeekin ahozko edota idatzizko harremana izatea eta 2. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa gaindituta edukitzea.

Abiapuntuko informazio horretan oinarrituta, *on line* bidezko inkesta bat bidali zaie teknikari guztiei. Zehazki, 148 teknikariri bidali zaie galdetegia, Jaurlaritzak igorritako dokumentazioan ageri diren guztiei, eta haietatik 116k erantzun dute inkesta. Lautik hiru pasatxok, hortaz. Erantzun ez duten kasu gehienetan intzidentziak izan dira: ez dagokiola erantzutea, zerrendan pertsona bera errepikatua dagoela, baja oso luzeak direla. Horiek kenduta, erantzun maila %94koa da. Hona inkestei buruzko informazioa:

1. taula: Abiapuntu zerrrenda eta jasotako erantzunak, erakunde motaren arabera.

Esparrua	Erakundea	HPStik jasotako zerrrendako langileak	Benetako abiapuntua, intzidentziak kenduta	Erantzunak		
				Guztira	% bert	% horiz
EAE	Emakunde	17	15	13	11,2	86,7
	Eudel	2	1	1	0,9	100,0
	Eusko Jaurlaritza	15	13	13	11,2	100,0
	Eustat	1	1	1	0,9	100,0
	HABE	1	1	1	0,9	100,0
	Lanbide	1	1	1	0,9	100,0
	Osakidetza	2	2	2	1,7	100,0
	Guztira	39	34	32	27,6	94,1
Foru aldundiak	Araba	4	3	3	2,6	100,0
	Bizkaia	2	1	1	0,9	100,0
	Gipuzkoa	2	2	2	1,7	100,0
	Guztira	8	6	6	5,2	100,0
Udalerriak, mankomunitateak eta kuadrillak	Araba	14	9	9	7,8	100,0
	Bizkaia	44	40	36	31,0	90,0
	Gipuzkoa	34	28	27	23,3	96,4
	Guztira	92	77	72	62,1	93,5
Hiriburuak	Bilbo	1	1	1	0,9	100,0
	Donostia	6	3	3	2,6	100,0
	Gasteiz	2	2	2	1,7	100,0
	Guztira	9	6	6	5,2	100,0
Guztira	148	123	116	100,0	94,3	

Iturria: HPS eta Siadeco, 2019

Emitza ontzat jo daiteke erantzun portzentaje hori. Kontuan izan behar da datu bilketa horretan HPSk bidalitako informazioa dela oinarri, eta ez dagoela erabat zehaztuta 148 teknikariko kopuru horrek unibertso osoa edo haren zer zati hartzen duen. Baina, erreferentzia modura —eta HPStik pasatako datua da hau ere—, guztira 122 berdintasun teknikari dira udaletan ari direnak, eta hogei Emakunden; hauei foru aldundietako teknikariak erantsi beharko litzaizkieke.

Hona hemen inkestan parte hartu dutenen ezaugarri nagusiak:

2. taula: Inkesta erantzun duten berdintasun arloko teknikarien ezaugarri nagusiak

	Ezaugarria	Kopurua	%
Sexua	Emakumeak	106	91,4
	Gizonak	7	6,0
	Zehaztu gabeak	3	2,6
Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna	1. HE	2	1,7
	2. HE	6	5,2
	3. HE	67	57,8
	4. HE	35	30,2
	Batere ez	6	5,2
	Guztira		116

Iturria: HPS. Siadecok landua, 2019

Bidalitako galdetegiak udalerraren arabera banatuta zenbatuz gero, hara: denera udaletako eta mankomunitateetako 78 teknikarik erantzun dituzte galdetegiak. Hona zer banaketa duten udalerriko biztanle kopuruaren eta gune soziolinguistikoaren arabera:

3. taula: Inkesta erantzun duten udaletako berdintasun arloko langileak, udalerriko biztanle kopuruaren eta gune soziolinguistikoaren arabera

		Langile kopurua	%
Biztanleria	<5.000 biztanle	13	16,7
	5.000-20.000 biztanle	41	52,6
	>20.000 biztanle	18	23,1
	Hiriburuak	6	7,7
Gune soziolinguistikoa	%20-50 euskaldunak	39	50
	%50-80 euskaldunak	36	46,2
	>%80 euskaldunak	3	3,8
Guztira		78	100,0

Iturria: HPS. Siadecok landua, 2019

2


Ahozko harremanak

Erakundeetan berdintasunaren esparruan diharduten teknikariek ahozko harremanetan zer hizkuntza darabilten aztertu da. Zehazki, honako erabilera hauei buruz galdetu da: aurrez aurreko solasaldiak, telefono bidezkoak, lan bilerak eta ekitaldiak (aurkezpenak, mintegiak, topaketak...). Harreman bakoitza zer erakunderekin izaten duten ere galdetu da, erabileraren azterketa sakonagoa egite aldera.

Datu orokorra hau da: batez beste, ahozko solasaldien %72 izaten dituzte euskaraz berdintasun arloko teknikariek erakundeen arteko harremanetan. Erabilera orokor hori sakonago aztertu da informazioa eman duten langileen ezaugarrien arabera: sexua, erakunde mota, lurraldea eta egiaztatutako hizkuntza eskakizuna. Udaletako langileen kasuan, beste bi ezaugarri ere hartu dira kontuan: udalerriko biztanleria eta gune soziolinguistikoa.

Banaketa horrek agertu ditu diferentzia batzuk. Berdintasuneko teknikarien ahozko harremanei dagokienez, honako hauetan egiten dute euskara gehien: diputazioetan, Gipuzkoan eta laugarren hizkuntza eskakizuna duten teknikarietan—udalei dagokienez, herri txikienetan eta laugarren gune soziolinguistikoa—. Aztertutako erakunde arlo guztietan, ahozko harremanak euskaraz izaten dituzte berdintasun arloko langile gehienek, Bizkaiko Foru Aldundian izan ezik (%44).

1. grafikoa: Euskararen batez besteko ahozko erabilera (%)




Iturria: Siadeco, 2019.

Batez besteko erabilera tasa horien azpian badira gorabeherak: teknikari bakoitzak ahozko harremanen zer hein egiten duen euskaraz. Datu orokorrek hau diote: teknikarien %19k erdia baino gutxiago egiten dute euskaraz; %61ek, gehiena; eta %21ek, ia dena.

Aurrez aztertutako aldagai horiek ere eraman dira tarteen sistemara. Erabileran ahulago non dabiltzan erakutsi du konparazio horrek. Teknikariek batez ere erdaraz egiten dute Bizkaiko Aldundiko berdintasun arloetan, eta gainerako erakundeetan, euskaraz. Badira nabarmentzeko moduko indarguneak ere: adibidez, gehienbat euskaraz egiten dute Arabako eta Gipuzkoako diputazioetako teknikari guztiek.

2. grafikoa: Batez besteko ahozko erabilera, tarteen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

<%25 %25-50 %50-75 %75-95 >%95





2.1

Harreman motak

Erabilera datu orokorretik harago, aztertzekoa da harreman mota bakoitzean zenbat erabiltzen duten euskara. Proporzioa antzekoa da aurrez aurreko harremanetan, telefonoan eta lan bileretan, %75 bueltakoa. Ekitaldietan, berriz, txikiagoa: %59.





Harreman mota bakoitza erakunde esparruarekin alderatuta, gutxi-asko bat datoz orain arte bistan jarritako diferentziak. Bizkaiko udaletan eta diputazioan agertu da hutsune nagusia, batez besteko erabileratik hamar puntu baino handiagoko galera. Aldiz, Gipuzkoako Diputazioa eta udalak gorago daude, aldearekin, eta Arabako Foru Aldundia ere bai. Datu orokorren arabera, ahozko erabilerarik apalena ekitaldietan ageri da: euskaraz gutxiago egiten da aurrez aurreko, telefonoko eta lan bileretako solasaldietan baino. Izatez, Arabako udalen eta Bizkaiko Aldundiaren kasuan, aldea oso nabarmena da —Bizkaiko Aldundiaren kasuan, %17ko erabilera ekitaldietan—. Aitzitik, Gipuzkoako Diputazioaren kasuan, erabilera handiena ekitaldietan ageri da, ia erabatekoa.

3. grafikoa: Batez besteko ahozko erabilera, komunikazio motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

■ Aurrez aurre (A) ■ Telefonoz (T) ■ Lan bilerak (B) ■ Ekitaldiak (E)



Iturria: Siadeco, 2019.

■ Aurrez aurre (A)
 ■ Telefonoz (T)
 ■ Lan bilerak (B)
 ■ Ekitaldiak (E)

2.2

Solaskidearen erakundea

Erakundeen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko proiektu pilotua jarri nahi du martxan Hakobak, eta, hain justu, komunikazioaren bi aldeak uztartu dira atal honetan: inkesta erantzun duen langilearen erakundea ez ezik, solaskidearen erakundea. Horrek bide eman du erakunde barruko ahozko harremanak eta kanpora begirakoak alderatzeko, eta erakunde batzuen eta besteen arteko harremanetan euskararen erabilera nolakoa den aztertzeko.

Batetik, ondorio nabarmen bat: kanpora begirako harremanetan euskara gehiago erabiltzen dute barruko ahozko erlazioetan baino —Bizkaiko udalen eta diputazioaren kasuan, ez dira teknikarien erdietara iristen barnean euskaraz aritu ohi direnak, baina hirutik bi baino gehiago dira beste erakunde batzuekiko harremanetan euskaraz egiten dutenak—. Bestetik, agerikoa da erakunde guztien arteko harremanak gehienbat euskarazkoak direla. Proportzioan diputazioetako langileek bideratutako harremanetan handiagoa da euskararen erabilera.

4. taula: Euskararen batez besteko ahozko erabilera, inkestatuaren erakundea eta harremaneko erakundea kontuan hartuta (%)

NORK	NOREKIN (harremaneko erakundea)							
	Erakunde barnean	Jaurlaritzarekin	Arabako Aldundiarekin	Bizkaiko Aldundiarekin	Gipuzkoako Aldundiarekin	Eudelekin	Udalekin	
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak	49,7	67,1	85,8	71,9	81,5	79,4	79,9	
Foru aldundiak	Araba	87,5	97,5	-	100,0	100,0	94,4	88,1
	Bizkaia	38,8	51,3	0,0	-	56,3	75,0	-
	Gipuzkoa	91,3	100,0	100,0	100,0	-	100,0	96,7
	Guztira	80,6	86,6	50,0	100,0	78,1	90,9	92,4
Udalak (hiriburuak barne)	Araba	34,6	68,5	73,5	-	-	85,2	79,6
	Bizkaia	49,0	69,0	-	66,0	100,0	70,7	56,6
	Gipuzkoa	81,9	81,3	-	-	92,8	81,3	96,4
	Guztira	61,3	73,6	73,5	66,0	93,1	76,7	76,6
Hiriburuak	Donostia	81,3	88,8	-	-	86,9	76,3	88,5
	Gasteiz	24,4	40,0	39,4	-	-	47,5	-
	Guztira	52,8	64,4	39,4	-	86,9	61,9	88,5
Guztira	EAE	49,7	67,1	85,8	71,9	81,5	79,4	79,9
	Araba	61,0	74,9	73,5	100,0	100,0	86,9	81,3
	Bizkaia	48,2	68,3	0,0	66,0	78,1	70,9	56,6
	Gipuzkoa	83,4	82,2	100,0	100,0	92,8	82,6	96,4
	Guztira	59,6	72,0	76,8	69,5	89,5	78,2	77,9

Iturria: Siadeco, 2019

Harreman mota bakoitzean zer desberdintasun dagoen erakunde esparru batzuetatik besteetara, nabari dira bi joera. Batetik, erakunde barruko harremanetan dela apalena euskararen erabilera, eta maizenik izaten diren harremanen kasuan —aurrez aurre eta telefonoan— alde adierazgarria dagoela. Bestetik, badira euskararen erabilera batez bestekotik gora duten hiru erakunde arlo: Gipuzkoako eta Arabako diputazioak, eta Eudel udal elkarteak.

5. taula: Batez besteko erabilera, ahozko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%)

Harremaneko erakundea	Aurrez aurre	Telefonoz	Lan bileretan	Ekitaldietan
Norbere erakundearekin	61,1	61,1	60,8	53,8
Eusko Jaurlaritzarekin	74,4	76,4	74,0	54,7
Arabako Foru Aldundiarekin	86,8	85,2	82,0	52,5
Bizkaiko Foru Aldundiarekin	75,4	76,0	63,8	49,0
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin	95,6	96,3	90,8	75,6
Eudelekin	82,1	82,3	76,1	65,6
Arabako udalekin	83,1	83,1	76,4	50,0
Bizkaiko udalekin	62,2	63,7	58,5	47,0
Gipuzkoako udalekin	98,4	98,3	98,8	92,0
2. gune soziolinguistikoko udalekin	71,3	70,9	68,5	46,5
3. gune soziolinguistikoko udalekin	90,2	91,0	88,4	81,2
4. gune soziolinguistikoko udalekin	100,0	100,0	100,0	96,0

Iturria: Siadeco, 2019

Harreman horiek aztertzean kontuan izan behar da batzuen eta besteen maiztasuna ez dela berbera. Ondorengo taulan bildu dira zenbatekoa den maiztasuna erakunde batzuetako eta besteetako berdintasun teknikarien ahozko harremanetan. Nabarmena da erakunde barruko harremanak direla ohikoena. Haren atzetik daude udalen arteko erlazioak, Eusko Jaurlaritza eta haren menpeko erakundeekikoak, eta diputazioekikoak.

6. taula: Ahozko harremanen maiztasuna, inkestatuaren erakundearen eta harremana daukan erakundearen arabera (%)

Norbere erakundearekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		43,8	12,5	0,0	43,8
Foru aldundiak	Araba	100,0	0,0	0,0	0,0
	Bizkaia	100,0	0,0	0,0	0,0
	Gipuzkoa	100,0	0,0	0,0	0,0
	Guztira	100,0	0,0	0,0	0,0
Udalak eta mankomunitateak	Araba	27,3	0,0	0,0	72,7
	Bizkaia	16,2	10,8	5,4	67,6
	Gipuzkoa	33,3	3,3	0,0	63,3
	Guztira	24,4	6,4	2,6	66,7

Eusko Jaurlaritzarekin eta menpeko erakundeekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		12,5	46,9	25,0	15,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	66,7	33,3
	Bizkaia	0,0	0,0	100,0	0,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	66,7	33,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	9,1	54,5	36,4
	Bizkaia	0,0	0,0	64,9	35,1
	Gipuzkoa	0,0	0,0	63,3	36,7
	Guztira	0,0	1,3	62,8	35,9

Arabako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	3,1	28,1	68,8
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	100,0	0,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	33,3	66,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	72,7	27,3	0,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	0,0	100,0
	Guztira	0,0	10,3	3,8	85,9

Bizkaiko Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	3,1	28,1	68,8
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	33,3	66,7
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	33,3	66,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	67,6	32,4
	Gipuzkoa	0,0	0,0	0,0	100,0
	Guztira	0,0	0,0	32,1	67,9

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	6,3	25,0	68,8
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	33,3	66,7
	Bizkaia	0,0	0,0	100,0	0,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	0,0	100,0
	Guztira	0,0	0,0	33,3	66,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	110,0
	Bizkaia	0,0	0,0	2,7	97,3
	Gipuzkoa	0,0	16,7	76,7	6,7
	Guztira	0,0	6,4	30,8	62,8

Eudelekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	12,5	21,9	65,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	66,7	33,3
	Bizkaia	0,0	0,0	100,0	0,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	66,7	33,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	81,8	18,2
	Bizkaia	0,0	0,0	64,9	35,1
	Gipuzkoa	0,0	0,0	46,7	53,3
	Guztira	0,0	0,0	60,3	39,7



Lehen udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	9,4	6,3	84,4
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	66,7	33,3
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	50,0	0,0	50,0	0,0
	Guztira	16,7	0,0	50,0	33,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	63,6	9,1	27,3
	Bizkaia	0,0	37,8	21,6	40,5
	Gipuzkoa	3,3	16,7	53,3	26,7
	Guztira	1,3	33,3	32,1	33,3


Bigarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	0,0	15,6	84,4
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	66,7	33,3
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	50,0	50,0	0,0
	Guztira	0,0	16,7	50,0	33,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	63,6	9,1	27,3
	Bizkaia	0,0	27,0	29,7	43,2
	Gipuzkoa	0,0	13,3	50,0	36,7
	Guztira	0,0	26,9	34,6	38,5

Hirugarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	0,0	15,6	84,4
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	100,0	0,0
	Guztira	0,0	0,0	33,3	66,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	54,5	9,1	36,4
	Bizkaia	0,0	18,9	32,4	48,6
	Gipuzkoa	0,0	10,0	46,7	43,3
	Guztira	0,0	20,5	34,6	44,9

Iturria: Siadeco, 2019

Aztertutako ahozko erabilerak eta harremanen maiztasuna kontuan izanda, erabilera indize bat sortu da. Horretarako, ahozko lau harreman motetako erabileraren batez bestekoa egin da —aurrez aurrekoa, telefonokoa, bileretakoa eta ekitaldietakoa—, eta maiztasunaren arabera haztatu. Horren arabera, euskara erabiltzen dute berdintasun teknikari gehienek. Erabilerarik handiena Gipuzkoako Diputazioan eta udaletan ageri da, %90etik gorakoa. Arabako Aldundia eta udalak daude ondoren, eta Bizkaikoak azkenik —azkenak egon arren, %60tik gorakoa da euskararen erabilera haztatua udaletan, eta %72koa diputazioan—.

4. grafikoa: Euskararen ahozko erabilera haztatua (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

3


Idatzizko harremanak

Aztertu da idatzizko harremanetan ere zein den euskararen presentzia herri administrazioetako berdintasun esparruko teknikarien jardunean. Kontuan izatekoa da idatzizko harremanen kasuan erakundeetan hedatua dagoela ele bietan aritzea, euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean. Hori dela eta, euskarazkoak ez ezik, azterketan kontuan hartu dira bi eleetan egindakoak ere.

Inkestaren emaitza orokorra hau da: euskararen erabilera %45ekoa da, eta horri erantsi behar zaizkio ele biz idatzitako dokumentuak, %30. Finean, beraz, euskarak presentzia du sei idazkitik bostean, eta gehienetan erabat euskaraz idatzita daude dokumentu horiek. Erabilera orokor hori sakonago aztertu da informazioa eman duen teknikarien ezaugarrien arabera: sexua, erakunde mota, lurraldea eta egiaztatutako hizkuntza eskakizuna. Udaletako teknikarien kasuan, beste bi irizpide ere hartu dira kontuan: udalerriko biztanleria eta gune soziolinguistikoa.

Hizkuntzen erabilerari buruzko jokabide desberdinak agertu ditu konparazio horrek. Erabat euskaraz egindako komunikazioak honako hauetan dira nabarmenago: Gipuzkoako eta Arabako diputazioetan, eta Gipuzkoako udaletan —udalen esparruan, laugarren gune soziolinguistikoan—, eta laugarren hizkuntza eskakizuna duten teknikarien artean. Bizkaiko udalen kasuan, berriz, ele bietan egiteko dute joera handiagoa —Bizkaiko Diputazioaren daturik ez da jaso idatzizko erlazioei dagokienez—.

5. grafikoa: Batez besteko idatzizko erabilera (%)




Iturria: Siadeco, 2019.



Idatzizko komunikazioak zein hizkuntzatan egiten dituzten berdintasun arloko langileek, tarreak sortu dira, datuak sakonago ikusteko. Komunikazioetan euskara erabiltzeari dagokionez, aldundiak dira indargune nagusia: Gipuzkoako eta Arabako diputazioak. Gipuzkoako udalak ere bai. Horietan teknikari gehienek idazten dituzte agiri gehienak euskaraz —laugarren hizkuntza eskakizuna lortua dutenen kasuan gehiago zabala dira—. Euskaraz idazteko ohitura txikiena Arabako eta Bizkaiko udaletan dago, eta Eusko Jaurlaritzan: kasu horietan, langile gehienek idazkien zati txikiagoa izaten dute euskaraz.

Erabat euskaraz idazten dutenei ele bietan aritzen direnak gehituta, areagotu egiten dira ehunekoak, jakina, eta ia idatzizko harreman guztiak hartzen dituzte. Alegia, teknikariek emandako informazioaren arabera, erabateko salbuespena da gaztelania hutsez idaztea.

6. grafikoa: Batez besteko idatzizko erabilera, tarteen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

■ <%25
 ■ %25-50
 ■ %50-75
 ■ %75-95
 ■ >%95

3.1


Harreman motak

Euskararen erabilera aldatu egiten da idatzizko komunikazio motaren arabera. Euskararen erabilera orokorrari dagokionez —alegia, erabat euskarazkoa eta ele bietakoa batuta—, erabilerarik handiena testu laburretakoa da (%85), eta txikiena, ekitaldietakoa (%66). Alde adierazgarria dago zertan erabiltzen dituzten gehiago euskara hutsezko testuak, eta zertan ele bietakoak. Testu laburretan, ez-ofizialetan egiten dituzte erabat euskarazko idazki gehienak: berdintasun arloko hamar teknikaritik zazpik egiten dituzte erabat euskaraz (%69). Komunikazio formalagoetara salto egitean, ordea, erditik behera jaisten da euskara soilik erabiltzen dutenen portzentajea, batik bat ekitaldietan (%28). Izatez, gaztelania hutsezko jarduna ekitaldietan da handiena (%34).





Erakunde esparruaren arabera badaude aldeak, hala ere. Hona gako nagusiak:

- Berdintasunaren arloko teknikari gehienek euskaraz idazten dituzte testu labur informalak. Aldea dago, hala ere, teknikariak egiaztatua duen hizkuntza gaitasunaren arabera: lehen eta bigarren eskakizuna duten teknikarien kasuan, izan ere, nabarmen gutxiago dira erabat euskaraz idazten dutenak. Bizkaiko udaletan ere erdietara ez dira heltzen erabat euskaraz idazten dutenak. Arabako eta Gipuzkoako aldundietan, berriz, hamarretik bederatzik baino gehiagok idazten dituzte testu horiek euskaraz.
- Testu teknikoetan nabarmen txikiagoa da euskararen erabilera, eta areagotu egiten da ele bietan aritzeko joera. Agiri tekniko gehienak erabat euskaraz izaten dituzte, hala ere, Arabako eta Gipuzkoako diputazioetan, eta Gipuzkoako udaletan; Bizkaiko udaletan, ele bietan aritzeko dute ohitura handiagoa. Erdara hutsez idaztea zabalduago dago agiri teknikoen kasuan: lau teknikaritik batek baino gehiagok adierazi dute hori. Erdarazko agiriak EAE mailako erakundeetan daude hedatuak (%41).
- Lan bileretako agirietan, berriz, testu teknikoetan baino handixeagoa da euskarazko agirien proportzioa, eta paretsu dago erdara hutsezkoena (%27). Indarguneak bat datoz: Arabako eta Gipuzkoako aldundiak, eta Gipuzkoako udalak. Hirutik bik egiten dituzte euskarazko agiriak. Erdarazko agiriak hirutik batek baino gehiagok dituzte, ordea, Arabako eta Bizkaiko udaletan, eta EAEko erakundeak ere ez dabilta urruti (%30).
- Euskararen presentziarik apalena ekitaldiekin lotutako dokumentuetan dago: gehiago daude ele bietan. Euskarazko agiri gehien Gipuzkoako udalek antolatutako ekitaldietan izaten da, eta gertu ditu Arabako eta Gipuzkoako aldundiak. Erdara hutsezko dokumentuen presentzia ere ekitaldietan da handiena: hirutik bat pasatxo. Portzentaje horretatik gora daude Bizkaiko udalak eta udalerrri handienak.

7. grafikoa: Batez besteko idatzizko erabilera komunikazio motaren arabera (L: testu laburrak, ez-ofizialak; T: testu teknikoak; B: lan bileretako agiriak; E: ekitaldiak) (%)



■ Euskaraz ■ Ele bietan



Euskaraz Ele bietan

3.2

Solaskidearen erakundea

Erakunde arteko harremanak euskalduntzea du helburu proiektuak, eta idatzizko erlazioetan, igorlea ez ezik, jasotzailea ere garrantzizkoa da. Horregatik, bi aldeak bateratu dira: inkesta erantzun duen langilearen erakundea eta solaskidetza zer instituzioekin duen. Horren bidez, erakunde barruko idatzizko harremanak eta kanpora begirakoak aztertu dira.

Barruko eta kanpoko idatzizko komunikazioak aztertzeko bidea eman du alderaketak. Nabari da erakunde barruko harremanetan txikiagoa dela euskararen erabilera, beste instituzio batzuekiko erlazioetan baino. Hiru erakunderekiko harremanetan du euskarak pisu txikiena: EAE mailako erakundeak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eudel.

7. taula: Euskararen batez besteko idatzizko erabilera, inkestatuaren erakundea eta solaskidea kontuan hartuta (%)

	Norekin (harremaneko erakundea)														
	Erakunde berarekin		Jaurlaritzarekin eta menpekoekin		Arabako Aldundiarekin		Bizkaiko Aldundiarekin		Gipuzkoako Aldundiarekin		Eudelekin		Udalekin		
	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak	36,3	31,0	48,8	25,5	66,4	17,5	49,6	16,1	53,5	22,8	55,6	17,5	46,5	30,8	
Foru aldundiak	Araba	60,0	40,0	66,3	26,3	-	-	-	-	42,5	35,0	65,0	23,8	63,8	28,8
	Bizkaia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	Gipuzkoa	70,0	18,1	62,5	37,5	43,8	56,3	43,8	56,3	-	-	43,8	56,3	68,5	30,0
	Guztira	65,0	29,1	65,3	29,1	43,8	56,3	43,8	56,3	42,5	35,0	57,9	34,6	65,7	29,3
Udalak (hiriburuak barne)	Araba	14,2	43,3	32,1	45,4	42,5	35,0	-	-	-	-	33,1	51,1	59,7	20,4
	Bizkaia	21,1	43,0	21,6	41,5	-	-	22,8	52,3	-	-	24,1	54,1	32,8	39,6
	Gipuzkoa	66,7	20,8	33,2	47,6	-	-	-	-	69,1	22,6	30,9	52,8	74,4	8,2
	Guztira	38,0	34,3	26,9	44,1	42,5	35,0	22,8	52,3	69,1	22,6	27,9	53,1	53,4	24,3
Hiriburuak	Donostia	90,0	0	31,3	65,0	-	-	-	-	66,3	33,8	51,3	47,5	-	-
	Gasteiz	5,0	52,5	12,5	67,5	16,3	33,8	-	-	-	-	12,5	67,5	100,0	100,0
	Guztira	33,3	35,0	21,9	66,3	16,3	33,8	-	-	66,3	33,8	38,3	54,2	100,0	100,0
Guztira	EAE	36,3	31,0	48,8	25,5	66,4	17,5	49,6	16,1	53,5	22,8	55,6	17,5	46,5	30,8
	Araba	32,5	42,0	42,4	39,6	42,5	35,0	-	-	42,5	35,0	38,9	46,1	60,7	22,5
	Bizkaia	21,1	43,0	21,6	41,5	-	-	22,8	52,3	-	-	24,1	54,1	32,8	39,6
	Gipuzkoa	67,3	20,3	34,8	47,1	43,8	56,3	43,8	56,3	69,1	22,6	31,9	53,1	73,8	10,6
Guztira	39,7	32,5	36,0	37,2	51,4	29,7	30,3	43,4	64,3	23,0	33,7	46,8	54,2	25,1	

Iturria: Siadeco, 2019

Idatziko harremanetan lau harreman mota hartu dira aztergai: testu laburrak, teknikoak, lan bileretako agiriak eta ekitaldietakoak. Hartzaillearen arabera aldatu egiten da batzuetako eta besteetako moldea. Euskaraz aritzeko ohiturarik handiena testu laburretan dute teknikariek —erdiak baino gehiagok euskaraz egiten dituzte—. Gainerako esparruetan pisu handiagoa du elebitasunak, batik bat EAE mailako instituzioekin, Bizkaiko Diputazioarekin eta udalekin eta Eudelekin. Erdara hutsez jardutea zabaldago dago ekitaldien kasuan, batik bat EAE mailako erakundeetan, Bizkaiko Foru Aldundian eta Arabako udaletan.

8. taula: Batez besteko erabilera, idatzizko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%)

Hartzailea	Testu laburrak		Testu teknikoak		Lan bileretako dokumentuak		Ekitaldietako idazkiak	
	Eusk.	Elebi.	Eusk.	Elebi.	Eusk.	Elebi.	Eusk.	Elebi.
Lan egiten duen erakundearekin	54,5	20,1	31,3	35,1	42,9	27,1	30,0	47,7
Eusko Jaurlaritzarekin eta menpeko erakundeekin	61,6	22,2	31,2	44,8	32,4	36,5	18,8	45,5
Arabako Foru Aldundiarekin	91,6	1,1	37,9	36,8	48,2	27,6	27,9	53,2
Bizkaiko Foru Aldundiarekin	56,1	18,6	22,1	52,9	27,0	48,8	15,8	53,4
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin	87,5	10,8	60,8	26,3	66,3	25,4	42,6	29,5
Eudelekin	62,2	26,3	29,1	59,3	27,0	51,3	16,3	50,4
Arabako udalekin	84,4	5,9	37,6	40,9	46,5	23,5	28,5	40,3
Bizkaiko udalekin	72,0	5,1	30,2	58,1	43,5	24,2	15,1	64,2
Gipuzkoako udalekin	95,1	0,0	63,5	13,7	83,8	9,6	53,9	17,2
2. gune soziolinguistikoko udalekin	77,4	6,0	35,7	46,7	50,6	16,4	22,9	50,7
3. gune soziolinguistikoko udalekin	92,3	0,0	56,1	24,5	68,6	23,1	44,0	26,8
4. gune soziolinguistikoko udalekin	100,0	0,0	62,5	12,5	100,0	0,0	86,3	13,8

Iturria: Siadeco, 2019

Harreman horiek aztertzean kontuan izan behar da batzuen eta besteen maiztasuna ez dela berbera. Ondorengo taulan bildu dira zenbatekoa den maiztasuna erakunde batzuetako eta besteetako berdintasunaren arloko teknikarien arteko harremanetan. Ahozko harremanetan sumatutako joerak ageri dira. Nabarmena da erakunde barruko harremanak direla ohikoenak. Haren atzetik daude udalen arteko erlazioak, Eusko Jaurlaritza eta haren menpeko erakundeekikoak, eta diputazioekikoak.

9. taula: Idatzizko harremanen maiztasuna, inkestatuaren erakundearen eta harremana daukan erakundearen arabera (%)

Norbere erakundearekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		43,8	12,5	3,1	40,6
Foru aldundiak	Araba	66,7	0,0	0,0	33,3
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	100,0	0,0	0,0	0,0
	Guztira	66,7	0,0	0,0	33,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	18,2	9,1	0,0	72,7
	Bizkaia	13,5	8,1	8,1	70,3
	Gipuzkoa	23,3	6,7	0,0	70,0
	Guztira	17,9	7,7	3,8	70,5

Eusko Jaurlaritzarekin eta menpeko erakundeekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		9,4	50,0	25,0	15,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	100,0	0,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	66,7	33,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	9,1	54,5	36,4
	Bizkaia	0,0	0,0	70,3	29,7
	Gipuzkoa	0,0	0,0	53,3	46,7
	Guztira	0,0	1,3	61,5	37,2

Arabako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	3,1	18,8	78,1
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	16,7	83,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	72,7	27,3	0,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	0,0	100,0
	Guztira	0,0	10,3	3,8	85,9



Bizkaiko Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	3,1	18,8	78,1
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	16,7	83,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	51,4	48,6
	Gipuzkoa	0,0	0,0	0,0	100,0
	Guztira	0,0	0,0	24,4	75,6

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	6,3	25,0	68,8
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	33,3	66,7
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	0,0	100,0
	Guztira	0,0	0,0	16,7	83,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	6,7	80,0	13,3
	Guztira	0,0	2,6	30,8	66,7

Eudelekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	15,6	9,4	75,0
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	66,7	33,3
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	50,0	50,0
	Guztira	0,0	0,0	50,0	50,0
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	81,8	18,2
	Bizkaia	2,7	0,0	56,8	40,5
	Gipuzkoa	0,0	0,0	36,7	63,3
	Guztira	1,3	0,0	52,6	46,2

Lehen udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	6,3	3,1	90,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	33,3	66,7	0,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	50,0	0,0	50,0	0,0
	Guztira	16,7	16,7	50,0	16,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	63,6	18,2	18,2
	Bizkaia	2,7	35,1	13,5	48,6
	Gipuzkoa	0,0	16,7	36,7	46,7
	Guztira	1,3	32,1	23,1	43,6


Bigarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	6,3	3,1	90,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	33,3	66,7	0,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	50,0	50,0	0,0
	Guztira	0,0	33,3	50,0	16,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	63,6	18,2	18,2
	Bizkaia	0,0	27,0	13,5	59,5
	Gipuzkoa	0,0	10,0	36,7	53,3
	Guztira	0,0	25,6	23,1	51,3

Hirugarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza eta menpekoak		0,0	3,1	3,1	93,8
Foru aldundiak	Araba	0,0	33,3	0,0	66,7
	Bizkaia	0,0	0,0	0,0	100,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	100,0	0,0
	Guztira	0,0	16,7	33,3	50,0
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	54,5	18,2	27,3
	Bizkaia	0,0	24,3	16,2	59,5
	Gipuzkoa	0,0	6,7	33,3	60,0
	Guztira	0,0	21,8	23,1	55,1

Iturria: Siadeco, 2019

Idatzizko erabilerak eta harremanen maiztasuna kontuan izanda, erabilera indize bat sortu da. Horretarako, idatzizko harreman motetako erabileraren batez bestekoa egin da —agiri ez-ofizialak, teknikoak, bileretakoak eta ekitaldietakoak—, eta maiztasunaren arabera haztatu. Horren arabera, euskarazkoak dira berdintasun arloko teknikari gehienek agiriak EAE mailako erakundeetan, Arabako eta Gipuzkoako foru aldundietan, eta udaletan. Ele biz jarduteko joera zabalduea Bizkaiko Foru Aldundian dute: erabat euskarazko agiriak baino gehiago dira. Erdara hutsezko jarduna gutxiengoa da, eta hedatuena Eudel udal elkartean eta Arabako udaletan dago.

8. grafikoa: Idatzizko erabilera haztatua (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

■ Euskaraz ■ Ele bietan

Gako nagusiak

Erakunde publikoetan berdintasun teknikarien hizkuntza erabilera aztertu da: bai ahozkoa, bai idatzizkoa. Hona emaitza nagusiak, ondorio gisara:

Datu orokorrak

EAEko administrazioetako berdintasun teknikari gehienek euskaraz izaten dituzte erakunde arteko harremanak, bai ahoz (%72), bai idatziz (%45 euskaraz eta %30 ele bietan). Batez besteko horien azpian badira aldeak beharginen artean. Ahozkoan, adibidez, bostetik batek ia dena egiten du euskaraz (%21), eta hirutik bik, erdia baino gehiago (%61). Idatzian, hamarretik bat eskasek egiten du ia dena euskara hutsez (%7), eta hirutik batek gehiena (%34). Datu horiek haztatu egin dira erabilera maiztasunaren arabera. Ahozko harremanetan, euskara da nagusi aztertutako erakunde arlo guztietan —Gipuzkoan, %90etik gora—; idatzizkoetan ere, gehiengoa da euskara hutsezkoa, erakunde barruan eta Bizkaiko Aldundian izan ezik.

Erakundeen arteko aldea

Erakunde bateko eta besteko teknikarien erabileran oso alde handia dago, bai ahoz, bai idatziz. Batez bestekotik behera daude EAEko erakundeak, Eusko Jaurlaritza eta haren menpeko organismoak; Bizkaiko Diputazioa eta udalak ere bai. Gorago ageri dira, aldiz, Arabako Foru Aldundia eta udalak, eta batik bat Gipuzkoakoak.

Erakunde bakoitzeko egoera

Erabilera hori zergatik gertatzen den azaltzeko, ezinbestekoa da, batetik, euskararen ezagutzari begiratzea: euskaraz aritzeko zer gaitasun duten teknikariek. Hizkuntza eskakizunei erreparatzen bazaie, maila aurreratua ageri da oro har: hamar teknikitik bederatzik hirugarren edo laugarren eskakizuna lortua dute (%88): diputazioetan, denek (%100); EAEko erakundeetan, hamarretik bederatzik baino gehiagok (%93); eta udaletan eta mankomunitateetan, zazpitik seik (%85).

Bestetik, berdintasunaren arloko egoerari ez ezik, komeni da erakundearen panoramari oro har begiratzea, horrek eragina baitauka barneko funtzionamenduan eta hizkuntza ohituretan. Alde horretatik, kontuan izatekoa da berdintasun arloko teknikarien hizkuntza gaitasuna erakundeetan oro har dagoena baino handiagoa dela. Datu hauek ageri dira *EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa* txostenean: hirugarren eta laugarren eskakizunak langileen %42k dituzte EAEko administrazioetan —berdintasuneko teknikarien artean, bikoitza baino handiagoa da portzentaje hori—.

Erakunde barrua eta kanpoa

Euskara gehiago non erabiltzen duten, joera da beste erakunde bateko langileekin egitea gehiago, erakunde barnekoekin baino. Ahozko harremanetan, adibidez, erakunde barruko erabilera haztatuan, %59 dira euskarazkoak, eta nabarmen gorago daude erabilera orokorrak: Jaurlaritzan, %76; aldundietan, %70-90 bitartean; eta Eudelen, %80.

Idatzizko harremanetan bada beste joera bat ere: ele bietan idazteko ohitura handiagoa da beste erakunde batzuekiko harremanetan, erakunde barnekoetan baino. Denek ez dute, ordea, neurri berean idazten ele bietan. Erakunde batzuetan handiagoa da bi hizkuntzen erabilera —bai erakunde horretako teknikariek emandako erantzunetan, bai beste erakundeetako teknikariek, haiekiko harremanez adierazitakoan—: EAE mailako instituzioetan, Bizkaiko Aldundian eta udaletan, eta Eudelen. Erabat euskaraz aritzeko joera handiagoa Gipuzkoako Diputazioak eta udalek dute, eta Arabako Foru Aldundiak. Ahozko harremanetan ere berbera da joera euskararen erabilerari dagokionez.

Erakundeen arteko harremanak

Lotura argia ageri da bi aldagairen artean: erakunde bateko teknikariek euskara zenbat erabiltzen duten eta beste erakunde batekoek zenbat erabiltzen duten erakunde horrekin. Gipuzkoako erakundeak dira horren adibide: euskararen ahozko erabilera %96koa dute erakunde horretako berdintasun teknikariek, eta erakunde horrekin beste instituzioetako langileen %90ek egiten dute euskaraz. Aldiz, Bizkaiko udaletan, joera handiagoa dute elebitasunerako. Orobat, EAE mailako erakundeei dagokienez, gainerako instituzioek joera dute bi hizkuntzetan igortzeko agiriak, nahiz eta erakundeotako berdintasun arloko teknikari gehienek euskaraz egin idazkiak.

Eranskina

Galdetegi eredua

ADMINISTRAZIOEN ARTEKO EUSKARAZKO HARREMANAK BERDINTASUN ARLOA

Inkestaren aurkezpena

Hizkuntza Politika gaietarako Herri Administrazioen Koordinazio Batzordeak, HAKOBAK, lantalde bat sortu du administrazioen arteko euskarazko harremanak sustatzeko. Ildo horretan, bi arlo hartuko dituen proiektu bat martxan jarriko da EAEko administrazio guzti-guztietan: berdintasuna eta kultura arloetan.

Proiektuaren helburua hauxe da: EAEko administrazioko eta foru- eta toki-administrazioetako lan-komunikazioetan euskararen erabilera bultzatzea, ahoz zein idatziz, aipaturiko bi arlo horietan. Lehen fase batean egoeraren abiapuntuko diagnostikoa egingo du Siadeco Ikerketa Elkartek.

Hori dela eta, zuregana jotzen dugu galdetegi honi erantzun diezaiozun eskatuz. Erantzun beharreko inkestarako sarbidea duzu jarraian.

Gogoratu, inkesta bidez jasotako informazioa, konfidentzialtasun osoz tratatuko dela; datuen erabilera pertsonalizaturik ez da egingo eta emaitza estatistiko orokorrak kalkulatzeko baino ez dira erabiliko.

Argibide gehiago behar izanez gero, SIADECO Ikerketa Elkartearekin kontaktatu dezakezu.

Aldez aurretik, zure lankidetzak eskertzen dizugu,



AHOZKO HARREMANAK

1. ZEIN ERAKUNDETAKO BERDINTASUN TEKNIKARIEKIN IZATEN DITUZU AHOZKO HARREMANAK?

MESEDEZ, AUKERATU DAGOZKION GUZTIAK

Lan egiten dudan erakundea bera	
Eusko Jaurlaritza	
Arabako Foru Aldundia	
Bizkaiko Foru Aldundia	
Gipuzkoako Foru Aldundia	
Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL)	
Udalak	
Erakunde horietako bakar batekin ere ez	

1.1. ADIERAZI ZEIN UDALEKIN DITUZUN AHOZKO HARREMANAK MAIZTASUN HANDIENAREKIN

1 UDALA _____

2 UDALA _____

3 UDALA..... _____

2. ZENBATEKO MAIZTASUNAREKIN HITZ EGITEN DUZU ADIERAZITAKO ERAKUNDE HORIETAKO BERDINTASUN TEKNIKARIEKIN?

SARRERA BAKOITZARI DAGOKION ERANTZUNA AUKERATU, MESEDEZ

	Egunero	Astero	Hamabost- ean behin	Hilean behin	Urtean zenbait alditan	Urtean behin baino gutxiagotan
Lan egiten dudan erakundea bera						
Eusko Jaurlaritza						
Arabako Foru Aldundia						
Bizkaiko Foru Aldundia						
Gipuzkoako Foru Aldundia						
Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL)						
1. Udala						
2. Udala						
3. Udala						

3. ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ERAKUNDE HORIETAKO BERDINTASUN TEKNIKARIEKIN?

ARGIBIDEAK:

- a) EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN AHOZKO ERABILERAREN PORTZENTAJEAK IPINI BEHAR DITUZU, ERAKUNDE BAKOITZEAN ETA KOMUNIKAZIO MOTAREN ARABERA, HAU DA, AURREZ AURRE, TELEFONOZ, LAN BILERETAN ETA EKITALDIETAN. AURREKO KOMUNIKAZIO MOTA HORIETAKOREN BAT EZ BADUZU, ZERO IDATZI BEHAR DUZU, BAI EUSKARAREN ZUTABEAN BAITA GAZTELANIAREN ZUTABEAN ERE. KOMUNIKAZIO MOTA HORI BALEGO, ALDIZ, EUSKARAZKO ETA GAZTELANIAZKO ZUTABEETAKO PORTZENTAJEEN BATURAK 100 IZAN BEHAR DU.
- b) BERDINTASUN TEKNIKARIAK AIPATZEN DIRENEAN TEKNIKARI GUZTIEI BURUZ ARI GARA, EUSKARAZ DUTEN HIZKUNTZA GAITASUNA KONTUAN HARTU GABE

Aurrez aurre		Telefonoz		Lan bilerak		Ekitaldiak (aurkezpenak, mintegiak, topaketak,...)	
Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt
Lan egiten dudan erakundea bera							
Eusko Jaurlaritza							
Arabako Foru Aldundia							
Bizkaiko Foru Aldundia							
Gipuzkoako Foru Aldundia							
Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL)							
1. Udala							
2. Udala							
3. Udala							

IDATZIZKO HARREMANAK

4. ETA ZEIN ERAKUNDETAKO BERDINTASUN TEKNIKARIEKIN KOMUNIKATZEN ZARA IDATZIZ?

MESEDEZ, AUKERATU DAGOZKION GUZTIAK

Lan egiten dudan erakundea bera	<input type="checkbox"/>
Eusko Jaurlaritza	<input type="checkbox"/>
Arabako Foru Aldundia	<input type="checkbox"/>
Bizkaiko Foru Aldundia	<input type="checkbox"/>
Gipuzkoako Foru Aldundia	<input type="checkbox"/>
Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL)	<input type="checkbox"/>
Udalak	<input type="checkbox"/>
Erakunde horietako bakar batekin ere ez	<input type="checkbox"/>

4.1. ADIERAZI ZEIN UDALEKIN DITUZUN IDATZIZKO HARREMANAK MAIZTASUN HANDIENAREKIN

- 1 UDALA _____
- 2 UDALA _____
- 3 UDALA..... _____



5. ZENBATEKO MAIZTASUNAREKIN IZATEN DITUZU IDATZIZKO HARREMANAK ADIERAZITAKO ERAKUNDE HORIETAKO BERTINTASUN ARLOKO TEKNIKARIEKIN?

SARRERA BAKOITZARI DAGOKION ERANTZUNA AUKERATU, MESEDEZ

	Egunero	Astero	Hamabost- ean behin	Hilean behin	Urtean zenbait alditan	Urtean behin baino gutxiagotan
Lan egiten dudan erakundea bera						
Eusko Jaurlaritza						
Arabako Foru Aldundia						
Bizkaiko Foru Aldundia						
Gipuzkoako Foru Aldundia						
Euskadiko Udalen Elkarte (EUEDEL)						
1. Udala						
2. Udala						
3. Udala						

6. ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIO HORIEK ZEIN HIZKUNTZATAN EGITEN DIRA?

ARGIBIDEAK:

EUSKARAZ, ELE BIETAN ETA GAZTELANIAZ EGITEN DIREN IDATZIZKO KOMUNIKAZIOEN PORTZENTAJEAK IPINI BEHAR DITUZU, IDAZKI MOTAREN ARABERA, HAU DA, TESTU ERRAZ/LABUR/EZ OFIZIALAK DIRENEAN, TESTU LUZE/TEKNIKO/OFIZIALAK, LAN BILERETAKO DOKUMENTAZIOA EDOTA EKITALDIETAKO DOKUMENTAZIOA DENEAN. AURREKO IDATZIZKO KOMUNIKAZIO MOTA HORIETAKOREN BAT EZ BADUZU, ZERO IDATZI BEHAR DUZU, HIRU ZUTABEETAN, EUSKARARENEAN, ELE BIETAKOAN ETA GAZTELANIARENEAN. KOMUNIKAZIO MOTA HORI BALEGO, ALDIZ, HIRU ZUTABEETAKO (EUSKARA, ELEBI ETA GAZTELANIA) PORTZENTAJEEN BATURAK 100 IZAN BEHAR DU.

	Testu erraz/labur/ez ofizialak			Testu luze/teknikoak			Lan bileretako dokumentazioa (aktak, deialdiak, dokumentuak)			Ekitaldiak (aurkezpenak, mintegiak, topaketak...)		
	Eus	Elebi	Gazt	Eus	Elebi	Gazt	Eus	Elebi	Gazt	Eus	Elebi	Gazt
Lan egiten dudan erakundea bera												
Eusko Jaurlaritza												
Arabako Foru Aldundia												
Bizkaiko Foru Aldundia												
Gipuzkoako Foru Aldundia												
Euskadiko Udalen Elkarte (EUEDEL)												
1. Udala												
2. Udala												
3. Udala												



PRESTAKUNTZA

7. BERDINTASUN TEKNIKARIEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZAN, ZENBAT IKASTARO JASO DITUZU EUSKARAZ?

ZURE ERANTZUNA HEMEN IDATZI, MESEDEZ:

%

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

8. ZEIN DA ZUK EGIAZTATUTA DAUKAZUN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA(HE)?

MESEDEZ, AUKERATU HAUETAKO BAT BAKARRIK

1. HE

2. HE

3. HE

4. HE

Bat ere ez

HAU IZAN DA GUZTIA.

MILA ESKER ERANTZUTEAGATIK.